

J'accuse

les politiques
migratoires

migrazio
politikak

las políticas
migratorias

Guk, (erakundearen izena)

Europa Gotorlekuaren inmigrazio-politika errepresibo eta hiltzailea agintzen duten botere politikoak akusatzen ditugu.

Gerrak, goseteak, ingurumenaren eta pertsonen biziraupena bermatzeko baliabideen ustiapena, lan-indarraren muturreko esplotazioa (benetako esklabotza modernoa) eta, gero eta gehiago, klima-aldaketa: guztiak sistema kapitalistak, patriarkalak eta arrazistak eraginda, milaka pertsona beren herrialdeetatik ihes egitera bultzatuta daude, bizimodu hobe baten bila. Bidaia luze eta arriskutsu bati ekiten diote, jakinik heriotza bidean gurutza daitekeela.

Migrazio prozesuan daudenak Bidasoaren bi aldeetan oztopo eta arriskuei egin behar diote aurre. Irungo Gurutze Gorrian 3 egun baino gehiago ezin dira gelditu eta egindako bidaia zailaren urrats honetan, beharrezkoa zaien informazioa lortzeko eta ulertzeko denbora izan gabe, hotik alde egin behar dute.

Bidaia jarraitzeko, Frantziako Poliziak kontrolatzen duen zubia zeharkatu behar dute, edo poliziaz josita diren tren geltokietara, autobideetara eta autobus geltokietara joan behar dute. Guzti horietan harrapatu eta hegoaldera itzultzen dituzte inolako legezko prozedura errespetatu gabe.

Muga arrazista eta bidegabe honen erantzule diren agintari eta legeak gutxienez Bidasoan 9 heriotzen eragile direla akusatzen ditugu.

Beste hauek ere akusatzen ditugu:

Euskal Herria beti izan da harrera, inmigrazio eta emigrazio lurralde bat, eta izaten jarraitu nahi du. Migrazio prozesu aske eta seguruak egiteko eskubidea aldarrikatzen dugu.

Urriaren 7an 7 ekintzaile epaituko dituzte. Haien kargugabetzea aldarrikatzen dugu, prozesu migratorio askak eta seguruaren alde egitea ez dela delitua aldarrikatzen dugu eta guk ere lan hori egiteko prest gaudela adierazten dugu. Pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko borrokan gure konpromisoa adierazten dugu.

(a)n ko aren an

Sinadura:



Autoinkulpazioa itzuli ezazu helbidera :
jaccuseakusatzendugu@gmail.com

Ekonomikoki parte hartzen dut